# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **Volver a empezar** | ★★ |
| Zuz.: Jose Luis Garci. 88m. Esp. 1982. | **11:00 La2** |
| **La caída** | ★ |
| Zuz.: Eric Laneuville. 90m. EEBB. 1999. | **17:00 T5** |
| **Los renegados de Wyoming** | ★★ |
| Zuz.: Fred F. Sears. 73m. 1955. | **18:40 ETB2** |
| **Cybertr@que** | ★ |
| Zuz.: Joe Chappelle. 90m. 1999. | **20:35 C+(f)** |
| **Le gendarme de Saint-Tropez** | ★ |
| Zuz.: Jean Girault. 95m. Fran-Ita. 1964. | **20:55 F3** |
| **Jugando con la muerte** | ★★ |
| Zuz.: Andy Wilson. 90m. 1997. | **21:45 ETB2** |
| **¡Vaya par de gemelos!** | ★ |
| Zuz.: Pedro Lazaga. Esp. 1977. | **23:35 TVE1** |
| **100 % arabica** | ★★ |
| Zuz.: Mahmoud Zemmcuri. 85m. 1995. | **23:25 M6** |
| **Lady oscar** | ★★ |
| Zuz.: Jacques Demy. 120m. 1978. | **00:30 Arte** |
| **Los contrabandistas de ...** | ★★★ |
| Zuz.: Fritz Lang. 87m. EEBB. 1955. | **01:20 ETB2** |
| **Bitelchús** | ★★★ |
| Zuz.: Tim Burton. 89m. EEBB. 1988. | **03:15 TVE1** |
| **Imágenes mortales** | ★ |
| Zuz.: Sheldon Larry. 91m. EEBB. 1992. | **04:30 T5** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

### VOLVER A EMPEZAR
**★★ La 2 - 11:00**

Zuz.: Jose Luis Garci. Akt.: Antonio Ferrandis, Encarna Paso. 88 min. Esp. 1982.

Jose Luis Garciren melodrama eztitsu eta geldo hau ez genuke gogoratuko, ingelesez besteko film onenaren Oscarra jaso izan ez balu. Erritmorik gabeko drama zozo eta aspergarria da. Bestalde, ikusleren batek edo bestek malkoak isuriko dituzte, oso istorio sentikor, triste eta hunkigarria kontatzen duelako. Antonio Ferrandis zenak eta Encarna Pasok maitasuna berreskuratuko dute, urte askoren ondoren.

### LE GENDARME DE SAINT-TROPEZ
**★ F3 - 20:55**

Zuz.: Jean Girault. Akt.: Louis de Funes, Geneviève Grad. 95 min. Fran-Ita. 1964.

Girault zuzendari frantziarrak Louis de Funes komikoaren luzimendu hutserako sortu zuen film umoretsu arin hau. Mundu osoan jasotako arrakasta ikusirik, martxan jarri zituen laster pertsonaia berak, jendarme txiki eroak, protagonizatutako beste abenturak, eta sail luze bat osatu. Entretenigarria da.

### JUGANDO CON LA MUERTE
**★★ ETB2 - 21:45**

Zuz.: Andy Wilson. Akt.: David Duchovny, Timothy Hutton. 90 min. 1997.

*X Files* telesail arrakastatsuak modan jarri zuen aktorea da *thriller* ilun samar honen izar nagusia: David Duchovny. Wilson zuzendariak aktore zozo horren luzimendurako egokitu ditu irudi gehienak, eta beste zenbait aktore ezagun bildu. Angelina Jolie modakoak eta Timothy Huttonek ere rol garrantzitsuak jokatzen dituzte. Ez da ona, baina hasieratik arretaz ikusiz gero interesgarria gertatuko zaizue.



Stewart Granger eta Viveca Lindfords.

Ane Muñoz

## Miresle eta miretsiaren arteko harreman polita

**LOS CONTRABANDISTAS DE MOONFLEET ★★★ ETB2 - 01:20**

Zuz.: Fritz Lang. Akt.: Stewart Granger, Gecrge Sanders. 87 min. 1955.

XVIII. mendeko Ingalaterrako kostaldera garamatza ipuin moduko abentura gozagarri eta polit honek. Umezurtz gaztetxo baten eta horrek asko miresten duen kontrabandista helduaren arteko harreman bitxia erakusten du. Fritz Lang handiak maisutasun handiz filmatutako irudi eder eta hunkigarriotan aktore erakargarriak biltzen dira, Stewar Granger ahaztezina tartean. Adin guztietako ikusleei gomendatuko nieke, hain berandu emango ez balute.

### VAYA PAR DE GEMELOS
**★ TVE1 - 23:35**

Zuz.: Pedro Lazaga. Akt.: Paco Martinez Soria, Margot Cottens. 86 min. Esp. 1977.

Pedro Lazagak zuzendutako fim honetan, tarte entretenigarria igaroko duzue Paco Martinez Soria komiko atzerakoiaren umore zakarra jasateko gai zaretenek. Komedia hau arrakastatsua izan zen bere garaian, baina guztiz zaharkitua dago. Bi anaia bikien gorabeherak erakusten ditu istorio korapilotsu baten bitartez, eta gaizki ulertuek eragindako egoera barregarrietan oinarritzen du umorea.

### BITELCHUS
**★★★ TVE1 - 03:15**

Zuz.: Tim Burton. Akt.: Michael Keaton, Alec Baldwin. 88 min. EEBB. 1988.

Tim Burton zuzendari bitxiaren komedia fantastiko bihurri eta ero samarra da, aktore ospetsuak biltzen dituen film gotiko entretenigarri eta polita. Mamu jator batzuen joan-etorriak erakusten ditu; istripu baten ondorioz hil egin dira ezkonberri batzuk, baina haien mamuak etxera itzuliko dira.

# irratia

| FM | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Segura Irratia 89.2 | | Irulegiko Irratia 91.8 | | Euskadi Irratia 94.4/95.2 | | Bilbo Hiria 96.0 | | Herri Irratia 99.8 | | Bizkaia Irratia 102.5 | | Gure Irratia 106.6 | | Xorroxin Irratia 107.5 | |
| | 91.4 Euskalerria Irratia | | 93.6 Arrate Irratia | | 95.5 Xiberoko Boza | | 97.00 Tas-tas Irratia | | 101.3 France Bleu Pays Basque | | 103.5 Euskadi Gaztea | | 107.5 Txolarre Irratia | | 107.7 Hala Bedi |

OM: 1224 Herri Irratia

**MOLOTOFF IRRATIA.** Sanjoanak direla eta, irratsaio bereziak prestatu dituzte gaurko eta biharko Molotoff Irratian. 11:40an, San Joan Kantaitaz mintzatuko dira Pepi Arrospide eta Xabier Odriozola antolatzaileekin. 12:00etan, Santa Barbara elkarteko presidente Juan Bautista Biurrarena elkarrizketatuko dute. 12:20an, sanjoanetako ohiturei buruz hitz egingo dute Emeterio Sorazurekin; garai batean suak zuen esanahiari buruz, besteak beste. Eta 15:30ean, sanjoanei buruzko mahai-ingurua izango da; bertan, Imanol Larretxeak, Eulali Aranburuk eta Santi Zubeldiak hartuko dute parte.

**RADIO EUSKADI.** Elkarri-ko bozeramaile Jonan Fernandez elkarrizketatuko dute gaur goizean *Boulevard* irratsaioan. *En profundidad* eztabaida atalean, berriz, argaltzeko produktuen inguruan eztabaidatuko dute.

**TXOLARRE IRRATIA.** 11:15ean, *Eltze artean* sukaldaritza atalean, Itziar Elortza kontsumitzaileen ikuspegitik arituko da. 12:30ean, Karlos Linazasoro idazlearekin hitz egingo dute, *Ipuin errotikoak* liburuaren inguruan. Eta 20:00etatik 21:00etara, bidai kontuak eta musika izango dira nagusi *Txapela buruan eta ibili munduan* irratsaioan.

## ETB-1

**06:50:** Beakmanen mundua.
**07:05:** Betimu.
**07:30:** Betizu.
Hirukiak II.
Harriketarrak.
Autobus magikoa.
**09:00:** Sylvan.
**09:20:** Euskal Herritik.
**09:45:** Koala erregea.
Dokumentala.
**10:30:** Burdinezko kemena.
**11:25:** Bidaide.
Bide basatiak: Yukongo nomadak.
**12:20:** Esanak esan.
**12:55:** Iparraldearen orena.
**13:05:** Parker Lewisek ez du sekula galtzen.
**13:30:** Gaur egun.
Albistegia.
**14:05:** Otorduan Karlos Argiñano.
**14:25:** Bertatik bertara.
**14:50:** Hasiberriak.
**15:10:** Gagnora gagbe.
**16:05:** Bidaide.
**17:00:** Mike Hammer.
**17:40:** E-klipse@.
**18:20:** Otorduan Karlos Arguiñano.
**18:35:** Betizu.
**20:28:** Gaur Egun.
Albistegia.
**21:10:** Bertatik bertara.
**21:35:** Goenkale.
**22:20:** Euskadiko XXV dantza askatu txapelketa.
**00:00:** Hau komeria.
**00:25:** Freddie Starr.
**00:50:** Bakarrik.
**02:50:** Bertatik bertara.
**03:10:** Zaharrak berri.
**03:35:** Algara.
**04:30:** Ikusgela.
**05:25:** Ander eta konpainia.
**05:55:** E-klipsea@.
**06:20:** Bizi zentzumenak.
**06:20:** Ikusbit.
Saio didaktikoa.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal.
**09:00:** Los desayunos de TVE.
Gonbidatua: Enrique Mugica.
**09:50:** Maria Emilia.
Telesaila.
**12:00:** Saber vivir.
**13:00:** A si son las cosas.
Magazina.
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazón de primavera.
Anne Igarteburuk aurkeztutako saioa.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** El secreto.
Telesaila.
**16:45:** La revancha.
Telesaila.
**18:45:** El precio justo.
Lehiaketa.
**20:00:** Gente.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Academia de baile.
Telesaila.
**23:35:** Zinema.
**Vaya par de gemelos**
Zuz: Pedro Lazaga. Akt: Paco Martinez Soria, Margot Cottens. 1977.
**01:30:** Telediario 3.
Albistegia.
**02:00:** Reyes y rey.
Telesaila.
**02:45:** Corazon de Verano.
Errepikapena.
**03:15:** Zinema.
**Bitelchus**
Zuz: Tim Burton. Akt: Michael Keaton, Alec Baldwin. 1988.

## ETB-2

**07:20:** Del pais de los vascos.
**07:50:** Empresa vasca.
**08:20:** Cafe co-media
Radio noticias.
Loco por ti.
Ned y Stacey.
**09:30:** El punto. Gonbidatua: Patxi Ormazabal.
**10:00:** Forum. Gonbidatuak: Esther Gonzalez.
**10:30:** Dokumentala.
**10:45:** Clasicos en serie.
**12:25:** La cocina de Subijana.
**12:40:** La ley de la bahia.
**13:40:** Euskadi directo.
**13:40:** Navarra directo. (Nafarroan).
**13:55:** El principe de Bel Air.
**14:28:** Teleberri.
**15:20:** Lo que faltaba.
**18:40:** Zinema:
**Los renegados de Wyoming**
Zuz: Fred F. Sears. Akt: Philip Carey. 1955.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri.
**21:45:** Zinema.
**Jugando con la muerte**
Zuz.: Andy Wilson. Akt: David Duchovny. 1997.
**23:40:** El factor humano.
Un dia de camping.
**01:20:** Zinema.
**Los contrabandistas de Moonfleet**
Zuz: Fritz Lang. Akt: Stewart Granger. 1955.
**03:00:** Medias de seda
**04:30:** Lo que faltaba.
**07:20:** Amaiera.

## A3

**07:05:** Sailormoon.
**07:25:** Club Megatrix.
El increible Hulk.
Ace aventura.
Gadget boy.
Marsupilami.
**09:30:** El primer cafe.
**10:30:** Como la vida.
Alicia Senovillak aurkeztutako saioa.
**13:25:** Menudo es mi padre.
Telesaila.
**13:35:** Informativos territoriales.
Deskonesiones.
**13:55:** Sabrina.
Telesaila.
**14:25:** Los Simpson.
Marrazki bizidunak.
**15:00:** Noticias 1.
Albisteak.
**16:00:** Sabor a ti.
Magazina.
**19:15:** Ahora.
Magazina.
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiakata.
**21:00:** Noticias-2.
Albisteak.
**22:00:** Policias.
Telesaila.
**23:35:** Jag.
Telesaila.
**01:45:** Noticias 3.
Albisteak.
**02:30:** Setinel.
Telesaila
**03:15:** Televenta.
**06:00:** Repetición de programas.